

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2021EKO
URTARRILAREN 8A
BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS
756. ZENBAKIA

SUGARREN SAMINETIK, ITXAROPENERA

Zazpi urte bete dira Trintxerpeko Euskadi etorbideko etxebizitzak erre zirela. Bizilagunek nola hala egin dute gaurdainoko bidea. Bizileku berriak estreinatzeko gogo biziz daude // 4-7

Amazonen etorrerak alarma eta kezka oso handia eragin du merkataritxikien artean // 12-15

HITZAren astekari berriarekin batera, 2020ko Urtekaria, gaur, harpidedunen postontzian // **GEHIGARRIA**

Iritsi da unea

Hemen da gure astekari berria!

Amaitu da sari sorta ederraren zozketan parte hartzeko epea. Eskerrik asko bihotzez parte hartu eta orrialde hau partekatu duzuen guztioi. Laster jakinaraziko dugu zein izan den sariduna. Egon adi gure webguneei eta sare sozialeei!



Astekari berriko lehen zenbakia eskuragarri duzu gure webguneetan, ez galdu aukera. Goza eta irakur ezazu! Sakatu bannerretan, eta ezagutu HITZA berritua.

Gure **astekari berria** jaso eta beste hainbat abantaila izan nahi dituzu?

Harpidetu zaitetz

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA • 2021eko urtarrilaren 8a

Oiertzualdeko Hedabideak S.L.ko kideak:

Oiertzun Irratia

ORRATX! kultur elkarte

Antxeta Irratia

BERTAKO hedabideak

Pausu media

Lau Haizetara

eta Oarsoaldeko beste 53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak.
Udalak: Errenteria, Lezo, Oiertzun, Pasaia.**Argitaratzailea:**

Oiertzualdeko Hedabideak S.L.

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste.

Egoitza nagusia:Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.**Telefonia:**

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Webguneak:bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
oarsobidasoa.hitza.eus**Publizitatea:****Telefonia:**

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):**943 30 43 46****harpidetza@hitza.eus****oarsobidasoa.hitza.eus**
oarsoaldea.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus

Urko Etxebeste Petrirena

OARSO BIDASOKO HITZAREN ZUZENDARIA

Erotu gara, errotu gara

Esku artean duzun aldizkari hau aro berri bati begirako informazio euskarria da. Tokiko euskarazko informazioan sakontzeko baliabidea. OARSO BIDASOKO HITZAREN papereko edizioak eraberritze sakona izan du. Hasiere batean itxuran nabaritu zuten harpidedunek aro aldaketa. Baina mamira jonda, are nabarmenagoa suertatuko da aldaketa. Osasun kontuengatik bizi dugun sasoi honetan zaila da gehientzat aurrera urratsak egitea, aldrebesa suertatzen ari da sarritan epe ertain edo luzerako egitasmoetan buru-belarri jartzea. Baina HITZAN egin dugu. Erotu gara, beharbada. Baina gure egiteko eran errotu gara. Hori da asmoa behintzat. Interneten egunero eta uneoro jarraituko dugu herrietako errealitatea jaso nahian; 32 orriko berri paper hau soseguz, patxadaz irakurtzeko modukoa izango da.

Jauzia eman du HITZAK bere papereko edizioa erabat eraldatuz. Astekariaren ezaugarri nabarmenena formatuaren berri zuzen bada ere, edukietan jarri du arreta berezia hedabideak. Horiek guztiak harpidedunekin, langileekin eta nahi izan duten guztiak burututako parte hartze prozesu baten bitartez hitzartu dira. Hartara, edukietan garrantzi handiagoa hartuko dute Oarsoaldeko eta Bidasoko herriek, haienezako bakoitzarentzat espresuki gordetako bi orri izango direlako zenbaki bakoitzean. Gainera, landuko di-

ren erreportaje eta elkarrizketa nagusietan, lokaltasunaren aldeko apustu sendo-agoa egiteko konpromisoa hartu du hedabideak. Izan ere, HITZAK ezaugarri bat badu, hori lokaltasunarena da, hau da, tokian tokiko informazioa lantzearena.

Bide horretan, kolaboratzaileen sarea zeharo indartu da. Astez aste, iritzia ematen hamabi lagun arituko dira; sinadura batzuk ezagunak izango dira harpidedunentzat, aurretik ere bazirelako iritzi emaile. Zutabegileen artean, ordea, gehienak berriak dira. Horiek bi eskualdeetako sei herrietakoak dira, eta bakoitzaren ikuskeratik bertakoa, hemengoa eta hangoa nola atzematen duten azalduko dute euren leihoeetatik.

Sormenak, sortzaileek ere badute tartea esku artean duzun aldizkari eraberritan. Zenbaki guztietan ilustratzaileentzat eta komikigileentzat txokoa egongo da, eta horrez gain, sei argazkilariko talde bat saiatuko da irudi bakarrarekin sentsazioak biltzen eta horiek azaltzen.

Menu berriaren postrerako denbora pasen orria aurkituko dute harpidedunek. Bertako gai eta aurpegiak oinarri izanda, harpidedunen aisia tartetxoak gozagarriago egiteko bokazioarekin sortuta dago atal hori.

Gertukoagoa, gertukoekin eta gertatzen direnetatik gertu. Mundua aldrebes dagoen honetan bihotza jarri diogu informazioari. Giltza zuena da orain. ✕



Sugarrek itotako zazpi Urtezahar

Aurtengo kanpaikadekin zazpi urte bete dira Trintxerpeko 42 familiaren etxeak errauts bilakatu zituen suziria bota zenetik. Sugarrek kiskali ez zutena, urak ito zuen. Oraindik ez dira etxera itzuli.

OLAIA GERENDIAIN PASAIA

Urte berri bakoitzaren sarrerarekin nornahik izan ohi du zer ospatua, eta, hainbatek, baita aro horren abiadarekin, ustez, urte berria ‘bizi berri’ egingo duen agintza nahiz helbururik ere: erretzeari utzi, mendira gehiago joan, hizkuntza berri bat ikasi... Baina badira hamarnaka familia orain dela zazpi urtetik desio bakarra, zintzoa, eta hasiera batean ulergaitza gerta daitekeena partekatzen dutenak Urtezahar egunean: hurrengo mahatsak etxean jan ahal izatea.

Aurten zazpi urte bete dira Trintxerpeko 42 familiaren abaro ziren 32 etxebizitza eta etxepeko bost lokal —horien artean lau negozio— suak errauts bilakatu zituenetik. Urte berriaren heldueraren iragarle eta ospakizun izan ohi diren suziritako batek Euskadi etorbideko 5 zenbakiko teilatuan lur hartu zuen 2014. urtea jaio berri zenean; astiro bai-

no azkarrago, sugarrek sutondo horiek maldatzen zutena —oroitzapen balio-tsuenetik ondare hutsalenera arte— ezerez bilakatu zuten.

«Batzuk ezer gabe gelditu ziren suagatik, besteak uragatik», larriminez du go-goan Sonia Mirandak. Hura 7 atariko lehen solairuan bizi zen, eta bertan suak ez zuen kalterik eragin, baina garrak amatatzeko suhiltzaileek erabilitako urak ito zuen bere teilapeko bizitza. Batean, umezurtz sentitu zuen bere burua, estalperik gabe: «Minutu batetik bestera konturatu nintzen soinean neramanarekin bakarrik gelditu nintzela; besterik ez nuen».

Mauri Gonzalezek zuzenean bizi zuen bere etxearen ezbeharra, gurasoenean afaldu eta berera bueltan zihoan, txakurra paseatzera ateratzeko asmoz. Atarira heltzean, hasia zen sutea: «Dena ikusi nuen. Suziriak botatzen ari zen oraindik

Orain zazpi urte erretako eraikina suak eragindako kalteengatik eraitsi zuten. Berria eraikitzeke lanak ez dira bukatu. OLAIA GERENDIAIN

Sugarrek Euskadi etorbideko 5 eta 7 atariak kiskali zituzten. Eraikin zaharra eraitsi behar izan zuten. A. PEREZ-KARKAMO

KRONOLOGIA

2013TIK EGUNERA ARTEKO BIDEA

2013-12-31. Suziriek eragindako lehen sute batek lau pertsona zauritu zituen 13:00a aldera Euskadi etorbidean.

Hainbat etxebizitza hustu behar izan zituzten eta bizilagun gehienak etxera itzuli ahal izan ziren iluntze parterako.

2014-01-01. Bengala batek gauerdia pasata eragindako suteak Euskadi etorbideko lau etxe bloke hutsarazi zituen. Horietatik, 5 eta 7 atariak erabat kiskalita gelditu ziren.

2014-01-03. Bi zenbakietako bizilagunak beren etxeetara sartu ziren, ordu erdiz. Etxebizitza bakoitzeko lagun bat, teknikari eta suhiltzaile banarekin.

2014-12-28. SOS Pasaia Trintxerpe elkartek 129.000 euroko txeke bat eman zien bizilagunei, eraikinaren eraispen gastuei aurre egiteko.

2014-12-22. Bi eraikinen eraispenaren hasiera.

2015-02-12. Bi eraikinen eraispenaren amaiera.

2015-10-29. Berreraikuntza lanei hasiera emateko akordioaren itxiera.

2016-10-04. Eraikuntza baimena.

2017-05-16. Pasaia Udalaren eta bizilagunen arteko eraikuntza akordioa.

2019-02-01. Orubean eraikin berria egiteko lanen hasiera.

jendea». Bizilagun batekin topo egin zuen orduan, eta hura korrika batean sartu zen etxera bere lau hankako lagunak salbatzeko asmoz, baina Gonzalezek ez zuen zorte berdina izan: «Suaren tamaina ikusi nuenean esan nion: 'Joan txakurrak ateratzera!', bere biak hartu ahal izan zituen, baina nirea, Txispas, etxean gelditu zen. Niri ez zidaten igo-tzen utzi, azken solairuetako eskailetrak desagertuta ziren ordurako».

Jasandakoak eragindako ezintasuna iltzatuta dute bizilagunek. Bizitza oso



bat erraunts bilakatzen ikusi izana, baina, ez zen su-leizearen ate besterik izan, zazpi urte pasata ez baitituzte oraindik euren etxebizitzak berreskuratu.

Elkartasunak eraikitakoa

Gau hartan galdutakoa konpentsatzeko kalte-ordainik ez da; hala ere, gastuei aurre egin ahal izateko borroka odisea hutsa izan da: «Zati bat erreklamatzeko ari naiz oraindik ere», aitortu du Mirandak. Izan ere, pasaitarren egoera oso bestelakoa dela azaldu du Ane Piñeirik, 5 ataria zeneko bizilagunak: «Kasu hau oso ezberdina da. Kotxe bati erabateko hondamena ematen diotenean bezalakoa da. Haiek diote: 'Hau guztiz apurtuta dago. Zuk zenbat metro koadro dituzu? Ehun. Bada bakoitzeko legeak dio 800 euro direla, tori 80.000 euro eta hor konpon'».

Ordainketak, baina, kopuru hori baino askoz ere garestiagoak izan direla adierazi du Piñeirik: dela erretako etxearen mailegua, bizileku berriaren alokairua, abokatua, eraikina eraisteko baimena... Garai latz horien alderik samurrena herriarren elkartasunean topatu zuten kiskalitako etxeen jabeek: «Hori izan da atera dugun gauzarik onena, nola jendea elkartu den, egindako bilketak arroparekin, hornidurak, dirua...», dio Piñeirik

hunkituta. SOS Pasaia Trintxerpe elkar-teak, esate baterako, 129.000 euroko txekoa helarazi baitzien, besteak beste.

Begiradak atzera jiratzean ezintasuna hitza aipatzen dute kaltetutako guztiek. Baina errautsetatik birsortzen jakin dute. Ez dute bengala hura piztu zuenaren izena egunera arte deskubritu, eta argi daukate ez dela hori orain behar duten konponbidea, baizik eta etxera noiz bueltatu ahal izango diren jakitea. Mi-

Zazpi urte pasata ez dituzte oraindik euren etxebizitzak berreskuratu

randak aipatu du hainbeste izan direla promestu dizkieten datak, non dagoneko ez duen ezer sinesten: «Jendeak dio uztailerako, Karmengo Jaietarako, edukiko dugula, baina auskalo!».

Bada urte luzez bizileku izan zuen horretara inoiz bueltatuko ez denik, bizilagun batzuk hilak direlako, edota sutondo beste herri batean berreraiki duela besteren batek. Kasuak kasu, hauts bilakatu zen etxera itzultzeko denak zapore gazi-goza hartuko die hurrengo Gabonetako mahatsei, eta ziur datozen urteei desio berriak, itxaropentsuagoak zinez, eskatu ahal izango dizkiela. ✕

TESTIGANTZAK



«Sutea ikusi nuenean, berehala jakin nuen etxera ez ginela bueltatuko»

Ane Piñeiro

5 atariko bizilaguna

Suteak bere etxea hartu ondoren, ezin izan zuen sartu ondasunak ateratzeko. Zazpi urte ondoren, Piñeiro ez da bueltatuko bizileku hartara.

Nola izan zenuen sutearen berri?

Afaltzen ari nintzen nire anaiaren etxean, eta deitu zidan nire amaginarrebak, esanez: 'Ez kezkatu, baina argazki bat bidaliko dizut, zure etxea erretzen ari da'.

Hasiera batean pentsatu nuen sukalde batek su hartu zuela eta leiho batetik aterako zela kea, baina sutea ikusi nuenean berehala jakin nuen etxera ez ginela bueltatuko.

Zer egin zenuen?

Hasiera batean anaiaren etxean gelditu nintzen, itxaroten. Nire senide batzuk bai joan zirela ikustera, eta bueltatu zirenean esan ziguten oso inportantea zela sua. Gero ni jaitsi nintzen, baina oso urrutitik begiratu nuen, ez baitakizu zer egin; ez da gauza bat esaten duzuna: 'Bada hurbilduko naiz eta saiaturik naiz hau egiten'; ez, izugarritzko ezintasuna da.

Hasieran paralizatuta gelditzen zara, ikusten duzu sua etxe osoa ari dela hartzen, ez dela sukalde bat ari dena erretzen, eta momentu jakin batean etxea utzi behar duzula bi egunetan bueltatzeko. Ez dakizu zer egin.

Zer atera zenuen etxetik?

Ni ez nintzen sartu, hanka bat hautsita nuelako, igeltsatuta, eta ezin nintzen barruan moldatu azkar gauzak hartzeko. Nire anaia sartu zen, eta nik

esan nion: 'Zu lasai, lehendabizi joan leku honetara ateratzeko etxeko paperak, eskriturak eta abar, eta gero, ikusten duzuna, berdin dit; ateratzen duzula beroki bat, ongi; ikusten duzula hobeto beste hori, bada atera'.

Ordu erdi besterik ez genuen gauzak ateratzeko; jendea sartzen zen suhiltzaile eta udaltzain banarekin; egoera ez zen oso lasaia pentsatzeko ea zer atera. Batez ere arropa hartu zuen, eta eskatutako paperak. Orduan, ez naiz kexu, helburua bete zen.

Eta ordutik, egunera arte...

Gauzak ez dira ongi joan, oso gaizki joan dira, eta ari dira oraindik. Nik ez nuen inolaz ere imajinatzen zazpi urte luzatuko zenik prozesua, pentsatzen nuen hiru urtean, asko jota, dena konponduta egongo zela. Zazpi urtez luzatu da dena, eta nik oraintxe bertan beste etxe bat daukat; ez naiz bueltatuko egiten ari diren berrietara. Bizitza, azkenean, horrela joan da.



«Nire etxean suak ez zuen kalterik eragin; itzaltzeko urak suntsitu zuen guztia»

Sonia Miranda

7 atariko bizilaguna

Haren etxebizitza sutea itzaltzeko erabilitako urak suntsitu zuen. Bertan itotako oroitzapenak ditu bereziki gogoan Mirandak.

Bitan sartu zineten ondasunen bila.

Lehen egunetan utzi izan balidate etxean sartzen, gauza pila salbatu ahal izango nituzke, baina hasieran lau poltsa handi besterik ez zizkiguten eman, eta horietan ezinbestekoa bakarrik sartzeko eskatu ziguten.

Gero ez ziguten berriro sartzen utzi denbora luzean, esango nuke ia hila-

bete igaro zela, eta ordurako nire etxea (lehen solairuan) lizunduta zegoen guztia, eta ezin izan genuen ia ezer salbatu. Nire etxean suak ez zuen kalterik eragin; itzaltzeko urak suntsitu zuen guztia. Argazkiren bat atera genuen, hori zen gehienbat ni kezkatzen ninduen: haurraren argazkiak. Etengabe nioen: 'Semearenak atera behar ditut'. Halakoak, oroitzapenak.

Batzuk ezer gabe gelditu ziren suagatik, eta besteak uragatik.

Nora joan zineten?

Haurra txikia nuenez gurasoen etxera joan nintzen. Jende askok dei egiten zidan, euren etxeak eskainiz bizitzeko, eta horietako batek, nik oso eza-guna nuena, San Pedron pisu bat eskaini zidan oso prezio onean, eta hona mugitzea erabaki genuen.

Denbora guztian pentsatzen genuen haurraren, dena galdua baitzuen, eta azkena nahi genuena zen harekin ibiltzea alde batetik bestera; ikastola, lagunak... Hori guztia ahal bezain gertu izatea nahi genuen, eta hari ahal bezain arinen egitea prozesua. Esaten zidan: 'Ama, ez dugu etxerik'. Behin eta berriro errepikatzen zidan.

Babes ofizialeko etxean nik gehiago ordainduko nuen, lagunak kobratzen zidana baino. Dena den, diru gastu izugarria izan dira urte hauek; alokairuan bakarrik 40.000 euro ordaindu ditut dagoeneko zazpi urtean, eta hori alokairuagatik bakarrik, noski.

Atzera begira zer sentitzen duzu?

Amorrua eta ezintasuna. Nire etxea erre zidaten, debalde. Nik bikain utzi nuen, txukun, afaltzera joateko, eta bat-batean, minutu batetik bestera, konturatzen zara soinean daramazunarekin gelditu zarela, besterik ez.

Noiz bueltatuko zarete etxera?

Zintzoki, ez dakit orain zein entrega data dugun, ez dut ezer sinesten. Nik espero dut uztailean bertan egotea, baina ia hobe da eperik ez ezartzea, gero desengainurik ez izateko...

Eskertu nahi ditut SOS Pasaia plataforma eta herriko jendea, prozesu honetan zehar bizilagunoi eskaini dituguten laguntza guztiagatik.

Azalberritzez eta mamiberritzeaz

S ukaldeko egutegia aldatzarekin batera, ohartu zara mahai gainean duzun OARSO BIDASOKO HITZA-k azal berria duela. Ez da 2020koaren bera, eta alde batetik poztu zaitu horrek; atzean utzi nahi baituzu musukoek irribarreek baino oroitzapen gehiago betetzen dituzten urtea.

Txikitan eskulanak egiteko mahaian jartzen zenituen egunkari zati handietatik, orri txikiago eta koloretsuagoetara igaro da. Argazki gehiago dauzkala irudituz zaizu, edo hizkietan, eta hizki tartean ere irakurtzen ikasi eta marrazkiak ikusten dituzu orain. Zerbait aldatu da.

Aldaketak beti direla onerako irakurri izan diegu askori, hamaika aldaketa txar bizkarrean pilatzen ditugun bitartean. Baina jarraitu nahi dugu amesten, idealizatzen eta aldaketetan sinesten. Azken batean, denok egiten ditugu aldaketak. Handiak edo txikiak, azalekoak edo sakonak. Azalberritzeak ere, horixe adierazten dute: aldaketa baten beharra. Sarritan, muinekoari heltzearen beldurra azaleratzen digute azalberritzeak.

Abenduko lehen egunak iristerako bete ziren gure kaleak Gabonetako argiekin. Gure herriaren kanpo paisaia aldatu nahi genuen, beste zerbait ikusi —eta ahal zen neurrian, beste zerbaitetan sinetsi—. Argiztatutako bola berde eta irudi zuriek Instagrameko argazkien atzekaldea betetzerakoan edo bakardadean argiak itzaltzerakoan, miseria berek okupatzen dute kalekoen barrua. Etxetik ehunka kilometrora ziegan du ama batek; lanik gabe geratu da, baina hala ere tabernara doa gaztea, bestela ere nahiko prekario zebilen eta; hiruhileko honetako ura ordaintzeko pentsioak emango dion kezkatuta dago agurea, frontoiko haurrari ez diote lagunekin soka partekatzen utzi; etxera sartzeko beldur da etengabe senarrak gu-

txiesten duen emakumea; larrialdi klimatikoa dela eta zahartzean herria ezagutuko duen zalantza du beste batek; gitarra eskuan eta txapela lurrean du gitarra jostzaieak, kulturgileentzako sortutako *diru laguntzen* zozketatik xentimorik ere ez duela jasoko jakitun. Baina Gabonetako argiekin apaindu dugu paisaia, eta etxetako mahaietan kandelak eta plater dotoreak jarriko ditugu, azaleko giroa ere berritzeko; haragia ustez ezkutatzeko.

Ireki ditugu agenda berriak ere, zeroak bat forma hartu du —horrenbeste zero izateko ez da oso urte biribila izan, baina— hutsetik hasteko. Lehenengo orrialdeak bete ditugu koloretazko hitzorduekin, erregelaz eginiko karratuekin, eta plaren baitan formaz aldatzen diren

Iraitz Mateo Gogorza

OIARTZUN




enkontruetan. Baina apainduren atzean errealtate bera ez ote dagoen jarri ohi gara pentsatzen. Lan ordu estrak, hamarnaka bilera, bi mediku hitzordu eta pare bat izendun kafe —kafe bat hartzearen aitzakian jarritako bilkura interesatuak hauek ere—. Seguruago, alaiago eta berriago sentitzen gara, ordea, orri zuri berriak kolorez markatzearekin.

Agerian begiak soilik ditugun honetan oraindik kostatzen zaigu begietara begiratzea. Norberaren begietara begiratzea, batez

ere. Eta horregatik margotuko ditugu begiak, egunerokoen gainean berritze bat emateko, rimmel kapa berri batek indartsuago egingo gaituelakoan. Kanpo aldaketa txiki batek barruz ere mugituko gaituelakoan. Ispiluari irribarre egingo diogu orduan, kalean begi kliskaren bat egitera ausartuko gara.

Aldaketen hilabetea izaten da urtarrila. Mamia aldatzeaz, ordea, gutxiegi hitz egiten dugulakoan nago. Aurtengoan, baina, postontzian topatu dugunak ere baditu aldaketak, HITZA astekaria izango da 2021ean, azalez eta mamiz. Azalberritzeak on egiten digute. Baina mamiberritzeak egiten gaituzte hobe; eta elkarrekin bada, zer esanik ez. Hogeita bata, hitzak, eta HITZA, mamiberritu ditzagun batera. X

**Azalberritzeak on egiten digute.
Baina mamiberritzeak egiten gaituzte hobe;
eta elkarrekin bada, zer esanik ez**



ARGI IZPIA


Atzean gelditu da jada 2020a, bizitza hankaz gora jarri digun urtea. Denok jasan ditugu COVID-19aren ondorioak. Ezjakintasuna, beldurra, frustrazioa, haserre, tristura, bakardadea... Askorentzat urte iluna izan da.

Baina askok ere ikasi dugu iluntasun horretan mugitzen. Orainaldira ekarri ditugu zentzumenak, baita burua ere, eta gure bihotzak egunerokotasunak eskaintzen dituen une xume horiekin bete ditugu, distantziak eta bideodeiek besarkaden eta muxuen balioa bikoizten zuten heinean.

Itxaropentsu sartu gara urte berrian, urte aldaketak lehengo egoerara eramango bagintu bezala, baina iaz zera ikasi nuen: aldaketa gure barnean hasten dela, mundua ikusteko eta ulertzeko moduan.

Hasiberri dugun urte hau iluna izango dela uste dut, gogorra, baina iluntasun horretan mugitzen jarraituko dut, argi izpien bila, jakin badakidalako iluntasunak, ilun izateko, argiaren beharra duela.

TANIA TREZET PASAIA





Erraldoiak iraulitako irribarrea

Amazonek gune logistiko berria Lanbarren industrialdean kokatu behar duela ezagutarazi zuenetik hamaika izan dira protestara jotzen eragileak. Tokiko merkataritza kolokan dagoela diote denek.

REBEKA RUIZ OIARTZUN

Amerikako Estatu Batuetako (AEB) Amazon erraldoiak Oarsoaldera emandako saltoak ez ditu herritarrak ezustean harrapatu. Euskal Herrian, Trapagaranen (Bizkaia) kokatutako lehen gune logistikoaren ondoren, Oiarzungo Lanbarren industrialdean egoitza berri bat zabaltzea erabaki du Jeff Bezosek, munduko pertsonarik aberatsenatarikoak, zuzendutako multinazionalak. Are gehiago 2020. urtean bizitako pandemiak *online* merkataritzaren garrantzia eta goraldia agerian utzi ondoren.

Azaroan ezagutarazi zen baieztatu gabeko lehen albisteak: Lanbarren industrialdean kokatutako San Jose Lopez (SJL) garraio enpresak logistika azpiegiturak inbertsio funts bati saldu ondoren, AEBtan sortutako erraldoiak jarduera ekonomikoa bertan garatzeko asmoa agertu zuen. Handik gutxira SJL enpresako zuzendaritzak zurrumurrua baieztatu zuen.

Garapen ekonomikoaren zein osasunaren kaltetan, *online* enpresek eta gizarteak hartutako joera berriek kezka eragiten dute, hala ere,

hainbat sektorerengan. Hori izan da, hain justu, Oarsoaldeko zein Bidasoaldeko hainbat eragilek adierazitako ezinegona. Tankera horretako multinazional batek «tokiko merkataritzaren eta ekonomiaren zirkuitu hurbilen suntsipena dakar», adierazi du Kristina Gete Oarso Bidasoko Egin Irri, Izan Herri mugimenduko kideak. Amazon ezartzearen kontra daudenak antolatu dira bertan. Multinazionalak inguruko herrietan eragin «oso larriak» dituztela iritzi dio; batetik, «enpresa txikiak desagerrazten» dituzte, eta bestetik langileak «prekaritatera» kondentzen dituzte «lan harremanak duintasunetik aldeniduz». Gainera, Euskal Herriko ekonomiak azken hamarkadetan hirugarren sektoreari emandako bultzadak egoera larriagotu duela uste du Getek, «galtzailak» zeintzuk diren argi utziz: «Tokian tokiko merkatalgune txikiak, herria bizirik mantentzen dituzten eragileak, eta, dudarik gabe, langile gazte zein helduak».

Ildo horretan, ingurumenari eragindako kaltea ere hizpide izan du. Izan ere, Bezosek zuzendutako enpresari kutsadura handia sortzea leporatu diote behin baino gehiagotan. Kritikei aurre egiteko asmoarekin, Parisko akordioa hamar urte lehenago beteko

zuela ziurtatu zuen Bezosek; aldi berean, baina, klima aldaketa ukatzen duten eragile politikoei babes eman die, bestetik. Jarrera kontraesankor horren aurrean argi mintzatu da Gete, «ingurumen kalteak oso nabarmenak» direla esanez: «Banakako bidalketa masiboek, gehiegizko enbalajeek, eta energetikoki efizientzia txikia duten garraioek, besteak beste, Amazonek gauzatutako CO₂ isurketa ikaragarria eragiten dute». Ordez-kariaren arabera, banaketa ibilgailuek

Online enpresek eta gizartearen joera berriek kezka eragiten dute

gehienezko zama erdira murriztuta zirkulatzen dute entrega epeak bete ahal izateko, eta horrek, kutsadura «aztarna nabarmena» sortzen du. Hala eta guztiz ere, ekologia eta ingurumen terminoetan lan eginez gero, hori konpon daitekeela gehitu du Getek.

Erraldoiaren aurkako protestak

Azaroan Amazonen kokagune berriari buruzko lehen albisteak zabaldu zirenetik kontrako jarrera agerian utzi dute Oarsoaldeko zein Bidasoaldeko hamarnaka herritarrek. Izan ere, azaroaren bukaeran egin zuten lehen elkarretaratzea Oartzungo eragileek deituta SJL enpresaren inguruetan, *Amazon ez hemen*

ez inon! lelopean. Ordituk, hamaika izan dira erraldoia ezartzearen aurka azaldu direnak. Hala, Egin Irri Izan Herriek eragindako deialdiei erantzuteaz gain, sortuko diren dinamikatan parte hartzeko konpromisoa agertu dute.

Multinazionalak herrian, eskualdean eta lurraldean izan dezakeen eraginagatik ere kezka agertu zuen Oartzungo Udalak. Areago, Euskaldendak/Dendar-tean Euskadiko eta Gipuzkoako merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresa elkar-teen konfederazioko kideek gaia aztertzeke bilera egin zuten Oartzungo udal ordezkariekin. Jexux Leonet alkatea izan zen bilkuran alde batetik, eta Bittor Lizarribar eta Amador Viteri merkataritza elkarteetako presidentek bestetik. Zabalduetako informazioaren arabera, tokiko agintariak kezka helarazi zien dendarien ordezkariari, baina aldi berean argi utzi zien Oartzungo hirigintza planeamenduaren arabera, eremu hori bakarrik jarduera logistikoko edota industrialerako erabil daitekeela. Hortaz, jarduera horiek aurrera eramateko udalak ezingo lukeela jarduera-lizentziarik ukatu zehaztu zuen Leonetek.

Egoera ikusirik, hala ere, Euskaldendak/Dendar-tean konfederazioko ordezkariak Amazonen kokatzea oztopatuko lukeen argudioa aplikatu dezaten proposatu zioten bileran hartan Leoneti: enpresa horrek Oartzungo inguruetan egin nahi duen jarduera logistikoko bezala ez izendatzea; alegia, txikizkako salmenta gisa katalogatzea Amerikako erraldoiaren jarduera. Modu horretan, Oartzungo Hiri Antolamendu Plan Orokorrekin eta Eusko

Jaurlaritzaren Establezimendu Komertzial Handien legearekin talka egingo lukeela proiektuak sinetsita agertu ziren merkata-



Goiko argazkian, SJL garraio enpresaren irteera. Kamioiak bertatik eraman dituzte dagoeneko eta erabat itxita utzi dute. Beheko argazkian, Jeff Bezosek zuzendutako enpresaren aurkako protesta, Lanbarren industrialdean. Ondoko orrialdean, logistika gunearen sarrera, SJLren logoarekin oraindik.

R. RUIZ/ O. GERENDIAIN

riak. Hori horrela, udaleko zein Eusko Jaurlaritzako zerbitzu teknikoei zegozkien txostenak eskatuko zizkietela erantzun zien alkateak. Proposamena aztertzeke konpromisoa hartu zuen, beraz, bileraren bukaeran udal agintariak, nahiz eta unera arte, gaiaren gaineko berririk ez den ezagutarazi.

Oiartzungo tokiko gobernua zein eskualdeko gainontzeko udalek ere haien eskuetan dagoena egiten ari direla bertako saltokien alde ziurtzat jo du Kristina Getek. Amazon bezalako multinazionaleri aurre egiteko, zein tokian tokiko komertzioak bultzatzeko abiatutako inizatibetan antzeman daiteke jarrera hori haren esanetan, «tokiko merkataritza laguntzeko eta haren prestakuntza bultzatzeko egiten ari diren ahaleginean, zein hurbileko produktuen inguruan he-



rritarrak sentsibilizatzeko garatutako kanpainetan ere». Zentzu horretan, asebate agertu dira udal erakundeen inplikazioarekin.

Sentsibilizazioan sakonduz

Inguruko udal gobernuen jarrerarekin eta hartutako neurriekin adostasuna agertu arren, Egin Irri Izan Herri mugimendua osatzen duten kide eta eragileek Amazonen afera aztertzeke zenbat

batzar ireki egin dituzte, baita hainbat protesta aurrera eraman ere, esaterako, elkarretaratzeak, martxa bat, auto karabanak... Horrez gain, hainbat komunikazio esparrutan lanean ari dira gaiari oihartzuna emateko, kontzientziazio bideo bat ekoizti dute, eta Amazonen, zein bestelako multinazional erraldoien aurkako mozioak aurkeztu dituzte udalengan. Oiartzunen zein inguruko udalerrietan halako enpresa guneen kokapena

ZALDUNBORDA BIZIRIK-EK «BEHIN BETIKO KOLPEA» IZAN DAITEKEELA USTE DU

Zaldunborda Bizirik plataformak (lehen Zaldunborda Gelditu!) hasieratik arbuia du Amazon erraldoiaren Oiartzungo gune logistikoa. Tokiko negozio txiki eta ertain askorentzat «behin betiko kolpea» izan daiteke «online salmenta bultzatzea eta indartzea», Sonia Herce taldekideak adierazi duenez. Areago, «merkataritza gune handi bat bezain kaltegarria» irudi zaio, «online salmenta azken kontsumitzaileari hurbiltzen zaiolako» era horretan. Halako multinazionalak ekoizleei prezioak ezartzen dizkietela erantsi du, «azkenean, ekoizlea eta kontsumitzailea kontrolatuz».

Langileen lan baldintzak ere aztertu ditu Hercek. Halako enpresek prezioei ematen dietela lehentasuna adierazi du, horretarako beharrezkoak diren murrizketak eginez, «langileen soldatak doitu, haien lan baldintzak gogortuz». Lan duina bermatzeko tokiko merkataritza goraiatu du, «hurbi-lekoa eta zero kilometrokoa».

Hain zuzen, Zaldunborda Bizirik plataformako kideentzat, hori baita etorkizuna. Beraz, eredu horrerantz urratsak egitea ezinbestekotzat dute bizirauteko.

saihesteko bitartekoak eta baliabide legalak galdegiten ditu mozioak. «Aurreantzean, diseinatzeke dagoen gidalerroa modu zabalean eta gizarte guztiaren inplikazioarekin marraztea litzateke gure helburua», gaineratu du mugimenduko kideak. Ildo horretan, «azken helburua proiektua bera bertan behera geratzea zaila izanik ere», herritar bakoitzaren kontzientziaren gain jarri du mugimenduko kideak Amazon erraldioan erosteko aukera, «norberaren sentsibilizazio mailari dagokiolako». Hori horrela, kontsumitzaileen sentsibilizazioan eragitea izango da azken xedea Getek esan duenez, «ezinbestekoa baita horretan ere eragitea». ✕





Tamara Sastre Emekiko idazkariak *Antzina eta Gaur* liburuaren xehetasunak eman zituen. R. RUIZ

Lehen eta orain, herriko emakume guztiak plazara

Hogeita zortzi emakume erreferenterekin talde liburu osatu du Emekik. Gehienak hondarribiarrak edota herriari estuki lotuak, orain arte ukatutako plazara eraman ditu emakumeen elkarteak.

REBEKA RUIZ

Iraganetik gaur egunera arteko 28 emakume erreferenteren errepaso egin du Emeki elkarteak *Antzina eta Gaur* izenpean argitaratutako liburuan. Bertan aipatutako emakume gehienak hondarribiarrak edota Hondarribiarekin lotura zuzena izateagatik hautatu ditu Emekik dokumentazio lan honetan. Areago, ha maika diziplina ezberdinetako emakumeak dira aukeratutakoak.

Herriko Emakumeak Plazara izenburupean antolatutako aurkezpen ekitaldian eman zuten elkarteko kideek liburuaren berri. Osasun segurtasun neurriak medio, gehieneko edukiera mugatu behar izan zuten antolatzaileek. Itsas Etxea auditoriumean sartzeko gonbidapenak agortu ziren arte. Ekitaldi hunkigarrian parte hartu zuten ikus-entzuleek, eta guztiak, liburuaren kopia bat eramateko aukera izan zuten. Turismo bulegoetan jaso dezakete argitalpena debalde interesdunek, plazaratutako 2.000 aleak bukatu arte.

Horrez gain, Emakumeen V. Pala Txapelketaren dokumentala proiektatu zuten elkarteak. Garrantzia berezia eman zieten Emekiko aitzindariak ere azken honi, iazkoa bosgarren txapelketa izan

arren, lehenengo torneo 1995. urtean antolatu baitzuten. Ixabel Alkain eta Garbiñe Tijero hastapenetako jokalariek gogoratu zuten, garai hartan arauak, gaur ez bezala, mutilenak ziren. Hala, araudia pixkanaka egokitzen joan ziren moduan, kantxan ere apurka-apurka ahalduntzen joan ziren emakume haiek.

Mezu zuzena eta argia

Tamara Sastre Emeki elkarteko idazkariak egin zuen idazlanaren aurkezpena. Liburuaren errealitate bihurtzeko «hemen zaudeten pertsona askoren laguntza ezinbestekoa» jo zuen idazkariak. Are gehiago, hondarribiarrentzat zein gizar-tearentzat oro har, liburuaren «altxor bat» dela iritzi dio.

Ildo horretan, liburuak mezu argi eta ozen bat transmititzeko helburua duela nabarmendu nahi izan zuen elkarteko idazkariak, «emakumeak ez daitezuten baztertuak izan emakume izate hutsagatik». Hori dela eta, 1991. urtean Emeki elkarte sortu zuen emakume taldeari zein proiektuan parte hartu duten emakumei ere esker ona adierazi zuten Sastrek. ✕

Sormen idazketan trebatzeko tailerra

Bihar arte eman dezakete izena interesdunek Hondarribiko Zuloaga Etxea liburutegian garatuko den sormen idazketa tailerrean. Aurtengo ekitaldiaren nondik norakoak aurkeztu zituzten iragan astean Juan Luis Silanes Kultura zinegotziak, eta Itziar Sistiaga gaztelarazko zein Yolanda Arrieta euskarazko taldeen dinamizatzaileek Zuloaga Etxean egindako agerraldian.

Hamabi toki ditu euskarazko tailerak, eta aurrez aurre garatuko da hil bakoitzeko bi larunbatean, 11:30etik 13:00etara, hilaren 16an hasita. Gaztelarazko tailerra hilean bi asteartean egingo dute, telematikoki, 18:30etik 20:00etara. Izena emateko interesa dutenek Zuloaga Etxean, liburutegia@hondarribia.eus posta elektronikokoan, 943 11 12 85ra deituz edota 686 860 846 Whatsappean egin dezakete.



Adinekoen lehen txertoak, Betharramen

COVID-19 gaitzaren aurkako adinekoen egoitzetako txertaldiari hasiera eman zioten iragan astean, eta Hondarribiko Betharramgo Caser Residencial zentroa izan zen Gipuzkoako lehena, aldundiak hala erabakita. Erabiltzaileak txertatu ondoren, lantaldeak jaso zuen lehen dosia. Hilaren 18tik aurrera abiatuko dute bigarren txertaketa.

Euskal presoen aldeko kanpaina, amaitzear

Euskal presoek bizitako egoera ekonomikoa arintzen laguntzeko helburuarekin abiatutako kanpaina parte hartzeko azken deia luzatu du Hondarribiko sostengu taldeak. Urri bukaeran kanpaina aurkeztu zutenetik 50 lagun berriren konpromisoa lortu du mugimenduak, nahiz eta inizatibari azken bultzada emateko xedez deialdia luzatu die berriz ere hondarribiarrei.

Osasun larrialdi egoera dela-eta dirubilketak egin ohi diren ekitaldi guztiak bertan behera geratu direla gogorarazi dute. Hortaz, hileroko 5 euroko kuota ordaintzea proposatu diete herritarrei. Hala, Urko Labeagak jasotako diru kopuruaz gain, beste hainbat laguntza bermatuko lituzke taldeak era horretara. Ondoko kontu korrante zenbakia utzi dute interesdunen eskura (Laboral Kutxa): ES10 3035 0049 04 0491070278.



REBEKA RUIZ

Ostalaritzari babesa adierazi dio udalak

Hondarribiko Udala osatzen duten alderdi politiko guztiek ostalaritzaren sektoreari babesa azaldu diote. Tokiko ekonomiarako sektore «garrantzitsua» dela iritzita, aurtengo COVID-19ak sortutako ondorioak leuntzeko hartutako neurriez gain, «gogoeta prozesu bat irekitzeko konpromisoa» hartu du udal erakundeak. Hala, sektoreko eragileekin zein udal talde guztien parte hartzearekin lan mahai bat jarri du martxan udalak, «ekintzak proiektatu» eta «proiektuak planifikatzeko».



ZUMARDITIK ABIATUKO DA BIHARKO MARTXA

REBEKA RUIZ

Urtarrilaren hasieran, urtero, Bilbon zein Baionan egin ohi diren euskal presoen aldeko manifestazio erraldoiak herriz herri egitera deitu du aurtengo Sare Herritarrek. Hondarribian Zumarditik abiatuko da protesta, bihar, 17:30ean. Hondarribiko EH Bilduren eta Abotsanitzen atxikipenez gain, Oarso Bidasoko ELA eta LAB sindikatuek ere bat egin dute euskal presoen aldeko martxarekin. I. ZARATE



Urriari auzotarrek egindako mobilizazioaren irudia, «poliziaren indarkeria» salatzeko. IMANOL SAIZ

Errepresiorik eta kontrolik gabeko Mosku nahi dute

Azken hilabeteetan poliziaren presentzia handitu eta auzoa «kameraz josi» dutela salatzen jarraitzen dute bizilagun askok. Giza legearen udal ordenantzaren gaineko eztabaida publikoa eskatu dute.

IMANOL SAIZ

Irungo Moskuk azken urteetan pairatu behar izan dituen zenbait egoerekin oso kezkatu agertu dira auzotar asko. Auzoak jasaten duen jazarpen poliziala eta kontrola salatu dute maiz bertan bizi direnek. Poliziaren etengabeko joan-etorriak eta auzoan jarritako segurtasun kamerak auzotarrek jasandako jazarpen horren lekuko direla uste dute askok, tartean, bertan bizi diren Iker Eizagirrek eta Jone F. Zabaletak.

Irungo bestelako auzo eta eremu askotan ematen ez den errepresio baten

biktima dira auzotarrak ia egunero, hori uste dute biek. «Poliziaren presentzia handia izan da betidanik. Ohikoa da errondak egitea. Batzuetan modu nahiko artifizialean sorrarazten dituzte orden publikoko arazoak», esan du Eizagirrek. Horren adibide ugari eman dituzte biek. Esaterako, azken urtean bitan mobilizatu dira auzotarrak; lehenik, udaltzain eta ertzain talde bat gazte batzuen kontra «bortizki» oldartzegatik, eta bigarrenik, auzotar bat isundu zutela salatzeko, kalea aldarrikapenerako erabiltzeagatik. «Azken urteetan bi eraso horiei erantzuteko atera gara kalera, baina horrek ez du esan nahi kasu

bakarrak izan direnik, ezta gutxiago ere. Eguneroko ogia da askorentzat», erantsi du, amorruez, Zabaletak.

Bestelako hiri handietan bezalaxe, Irunek ere «hiritar eredugarriak» bilatzen dituela uste du Eizagirrek, hau da, sistemarentzat «produktiboak eta kontsumitzaileak» direnak. Baina Moskuk eredu horretan sartzeko nahirik ez duen auzoa izaten jarraitzen du askorentzat, eta horregatik diote errepresio gehiago jasaten dutela bertakoek. «Mosku beti izan da zona gorri edo kontestatarioa, hiri espazio errebeldea da», erantsi du.

Gutxi ez balitz, Irungo giza legearen ordenantza «oso murriztailea» dela esan du Zabaletak, kalean edozein ekintza egiteko baimena eskatu behar zaiolako udalari. «Kalean ezin da ezer egin», erantsi du Eizagirrek. Hortaz, irundar bezala honako eskaerak egin dizkiote udalari: «Udaltzain askok duten arrazoirik gabeko oldarkortasun eta biolentzia» gutxienez kontrola dadila eskatu dute, baita helburu mamitsuagoa jarri ere, «giza legearen ordenantzaren edukia eztabaida publikora bideratzea, kaleak denonak direlako».✕

Euskal presoen alde hiriko kaleak betetzera


Aurten ez da urteroko mobilizaziorik egingo Bilbon, baina Sare Herritarrak Euskal Herriko txoko guztietara eraman nahi du euskal presoen aldeko aldarria. Hala, Irunen ere manifestazioa egingo dute bihar: 17:00etan abiatuko dira San Juan plazatik.

Ondorengo aldarriekin aterako dira kalera: larri gaixo diren presoak etxean egon behar dutela; urrunketa politikarekin amaitu behar dela; gurasoak espetxean dituzten haurrek gurasoekin egoteko baldintzak bermatu behar direla; adinekoak diren presoak etxean behar dutela; eta euskal preso guztiei gradu progresioa ezarri behar zaiela. «Salbuespen legedia honi amaiera emateko» unea dela uste du Sarek, «preso eta iheslarien auziari aterabidea emateko».

«Langile-hiritar murrerrialdoia osatzea» xede

Azken hilabeteotan osasun sistema publikoaren alde Irunen egindako mobilizazioekin jarraitzeko prest daude hiriko biztanleak. «Bizitza duina eta justizia soziala» aldarrikatzen jarraitzeko premia nabarmendu du herritar taldeak, eta hala, datozen asteak mobilizazioz bete nahi dituztela adierazi dute. Horretarako, ekintzen agenda antolatzeke bilerak irekia egingo dute gaur, 18:30ean, Palmera Monteron.

«Urtarrilerako mobilizazio fase berri bat ireki du gehiengo sindikalak, ikusita Eusko Jaurlaritzaren jarrera autoritario eta neoliberala zein den eta izango den. Behe Bidasoko Osasungintza Publikoaren babeserako hiritar saretik, uste dugu mobilizazio hauek hiritarren mobilizazioekin osatu behar direla. Langile-hiritar murrerrialdoi bat osatu beharra dugula guztiok komunean dugun ondare honen defentsan», esan dute herritar taldekoek. Taldeko kideekin harremanetan jarri edo informazioa nahi dutenek, osasunpublikoazaindu@gmail.com helbide elektronikora mezua bidaltzeko aukera dute.



AITORTZA ETA ERREPARAZIO KEINU BAT

IMANOL SAIZ

Lluís Companys i Jover president katalanak merezitako aitortza jaso berri du Irunen. Izan ere, Irungo udalbatzak ontzat eman du Kepa Ordoki elkarteak aurkeztutako azken mozioa (aldeko 23 boto jaso ditu, eta kontrako bakarra). Horri esker, euskarri fisiko bat jarriko dute Irungo Etorbidearen zubian eta zubiko elementu bat Kataluniara eramango dute. «Aitortza eta erreparazio keinu batekin gatoz. Herritarrok eskubidea dugu zer gertatu zen ezagutzeko». HITZA



Garaipen handi baten opari erraldoia

Bidasoa eskubaloi taldeak Europako Kopa irabazi zuela 25 urte bete ziren iaz, eta garaipen historikoa gogoratzeko behar bezalako oparia egin dio Ondare elkarteak klubari: kopa hura oroitzeko erraldoi berezia egin dute. Astelehenean dantzatu zuten lehenengoz.

Urte berria kalean hasi dute pentsiodunek

Nola ez, borrokan hasi dute Txingudiko Pentsiodunen Mugimenduko kideek urte berria. Urteko lehen elkarretaratzea egin zuten hamarnaka lagunek astelehenean (hilaren 4an) Irungo San Juan plazan, eguraldia dela-eta udaletxeko arkupeetan aurkitu zuten babeserak. Astelehenero (12:00etan) elkartzeko asmoa dute pentsiodunek, osasun egoerak beti ere baimentzen duen bitartean.

Datozen aste eta hilabetei begira ere ondorengo aldarriekin hartuko dituzte kaleak, besteak beste: erosteko ahalmenaren urteroko KPI erreala ezagututa pentsioak legez bermatzea; duintasuna bermatzen dituzten pentsioak izatea (1.080 eurokoak gutxienez); eta emakume eta gizonen arteko pentsioen berdintasunarekin amaitzea.

Tokikoa eta kalitatezkoa bermatzeko, deskantsu gabe lanean

Lehen sektoreko tokiko ekoizleei eta haien produktuei balioa emateko kanpaina abiatu du udalak. Askotariko eta kalitatezko eskaintza bermatzen dute, eta tokiko ekonomia eta ingurumena bizirik mantendu.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA



Ekoizleetako batzuk, Aizpea Otaegi alkatearekin kanpaina aurkezten. HITZA

Lehen sektoreko ekoizleak ezagutarazi eta beraien produktuak herritarrengana hurbiltzeko kanpaina abiatu du udalak, Bizi Erreterria programaren barruan. *Erreterriako uzta* aterkipean, udalerrian lanean ari diren hamalau ekoizleen eta haien produktuen gaineko informazioa zabaltzea du xede, egiten duten lana aitortuta.

Kanpaina oso ondo baloratu du Aparola Zarra baserriko Gema Olasagarre Kamiok: «Pandemiarekin asko okertu da egoera, azokarik ez denez egin, ezer saldu gabe izan gara martxoaz geroztik, ez

da Sagardo Egunik egin, urriko azokarik, San Tomas egunik...». Barazkiak ekoizten ditu Olasagarrek. Dirua herrian gelditzeko modu bat da tokiko ekoizleen produktuak kontsumitzea, bere ustez.

Gazta, ardi esnea eta arkumeeekin ari da Eguzki Borda baserriko Josu Oizartabal Zapirain. Kanpaina ongi baloratu du, baina halakoak beti egin beharko liratekeela uste du, ekoizleen lana eta produktuak erakutsi, eta gertukoa kontsumitzearen ganean «kontzientzia sortze-ko». Kalitatezko produktuak eskaintzeaz

gain, ingurumenaren zaintza ere kontuan hartzen dutela dio, «o Km filsofiarekin bete betean egiten dugu bat, eta ingurumena eta paisaia zaintzen ditugu». Oinarrizkoa bada ere, lehen sektorea «bazerrean» utzi izana salatu du, eta herriaren errealitateari erreparatu dio: «Hainbeste mila biztanle izanik hamalau ekoizle baino ez izatea, triste da». Beldunaldi arteko erreleboa bermatzea ezinbestekotzat jo du.

Hamalau ekoizleen eskaintza osoa *bizierreterria.eus*-en kontsulta daiteke. X

orere.a
ikastola
AURRERA!



**ZURE SEME-ALABENTZAKO
NAHI DUZUN MUNDUA**

MATRIKULAZIO-GARAIA
urtarrilak 18 - 29

**BISITAK ETA BAKARKAKO
HITZORDUAK**

Hartu hitzordua webgunean eta ezagutu Ikastola bertatik bertara

www.orere.aikastola.eus



Kalera deitu du Sare Herritarrak, biharko

Euskal presoen eta iheslarien aldeko inizatiba antolatu du Sare Herritarrak biharko. Urte berriak lehen urratsak eman baditu ere, zaharra da euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko aldarria, eta pandemiak agertoki hori zaildu badu ere, ez du hutsik egingo. Bilbo eta Baionako kaleen lekukoa, Euskal Herriko herrietako kaleek hartuko dute, eta errepresaliatuen eskubideen aldeko bozgorailu izango dira.

Errenteria-Oreteran manifestazioa egingo dute, segurtasun protokoloa errespetatuta, 17:00etan, Zumarditik abiatuta. Abiatuko den puntu berean amaituko da martxa, bukaeran mosaikoa egiteko.

Sei oretertar daude egun Espainia eta Frantziako espetxeetan preso, eta horietatik bi larri gaixo daude: Mikel Arrieta eta Aitzol Gogorza. Azken hori etxean ari da zigorra betetzen.



AHTaren gaineko erakusketa, zabalik

Astigarraga eta Lezo lotuko dituen merkantziatiko AHTaren linearen gaineko erakusketa antolatu du Oarsoaldeko herritar talde batek. Erakusketaren bidez, azpiegiturak izango dituen ondorioak eta suposatuko duen diru xahuketa salatu nahi dute.

Xenpelar Etxean zabalik da erakusketa hilaren 30era bitartean, astelehenetik larunbatera, 17:00etatik 20:00etara.

Jon Unzuetarena izan da argazkirik onena

Urdaburuk antolatzen duen Jesus H ospitaler Mendiko Argazki Lehiaketaren lehen saria Jon Unzuetarentzat izan da, *Artikutza* argazkiarengatik. Joan den abenduaren 22an egin zuen mendizale elkarteak sari banaketa. Bigarren saria Manu Matasek eskuratu du *Ametsetan* argazkiarekin, eta hirugarrena, Jose Ramon Fernandezek *Laino artean*-ekin.

Ez ziren hiru horiek izan banatu zituzten sari bakarrak. Urdaburuko bazkideen artean aurkeztutako argazkirik onenaren saria Carlos Bayonek eskuratu zuen *Barranco de luna* irudiarekin, eta klubeko jardueren kategorian, berriz, *Saliendo del túnel* Marimar Lopezen sorkuntza izan zen egokiena epaimahaiaren ustez. Gainera, bost akzesit banatu zituzten: Enrique Villafrancak, Juan Lasartek, Alejandro Graciak, Garazi Zubizarretak eta Aitor Iburgurenak eskuratu zituzten sari horiek.



IKERNE ZARATE

Pentsio eta etorkizun duinen alde, kalean

Duintasuna elkarkea kalera atera zen astelehenean enegarrenez. Pentsio eta etorkizun duina aldarrikatu dute, eta gogor salatu Toledoko Itunaren gomen dioek suposatuko duten agertokia, pentsiodun eta jubilatuek kaltetzeaz gainera, okerrera emakume eta gazteentzat izango delako: «Etorkizunik ilunenera kondenatzen ari dira». Hainbat aurrerapen lortu badituzte ere, oraindik ere biga den luzea dela uste dute, eta borrokara batzera deitu dituzte herritarrak, «pentsio eta bizitza duinaren alde».

KOLDO MITXELENA
HERRI IKASTETXEA
www.koldomitxelenaikastetxea.com
 Fernandez de Landa z/g Errenteria-Oretera
 Tel.: 943 51 43 72 - 012905aa@hezkontza.net

Matrikulazio epea urtarrilaren 18tik 29ra

MATRIKULAZIO EPEA: Urtarrilaren 18tik 29ra
ATE IREKIAK: Urtarrilaren 11tik aurrera.
 (HITZORDUA ALDEZ AURRETIK HARTUTA)

Bizarain ikastola
 San Marcos z/g. 20100 Errenteria-Oretera
 Tel.: 943 34 16 45 - HLH
www.bizarain.eus - 013522aa@hezkontza.eus



Herriko merkatari eta ostalariek abenduaren 30ean egin zuten mobilizazioaren irudia. HITZA

Etorri denarekin etsita, etor daitekeenaren beldur

Lezoko Udalak herriko 28 ostalaritza guneri 1.000na euroko diru laguntza zuzena eman die. Eskertu egin dute emandakoa, baina bizi duten egoerari aurre egiteko nahikoa ez dela nabarmendu dute.

URKO ETXEBESTE

2020ko azken egunean Lezoko 28 ostalarik 1.000na euroko diru laguntza jaso zuten udalaren aldetik, azaro-abendu artean jasan zuten itxialdiak eragindako kalteak arintzeko neurri gisara. Jaso zituen eskaera guztiak onartu egin zituen udalak.

Aldi berean, COVID-19agatik egin diren inbertsioak finantzatzeko bost eskaerak ere onartu ziren. Aurki emango diete horiei laguntza.

Baina, laguntzak laguntza, Lezoko merkatariak, eta ostalariak batez ere, oso kezkatuta daude bizi duten egoerarekin. Mobilizazioak egin dituzte euren egoeraren berri eman eta laguntza eska-

tzeko. Sortu berri den Lezokoak merkatari, ostalari eta zerbitzu elkartearen ekimenez atera dira kalera.

Azken itxialdia pasata, urtea bukatu arteko egunetan herrian kontsumoa egon dela adierazi du Edurne Mitxeo bertako kideak, Lezokoak elkarteko bazkideen iritziak bilduta. Baina bezeroen emaria ez dela izugarri handia izan zehaztu du, ordutegiengatik, jende multzoak ez pilatzeko neurriengatik, edo beldurragatik. «Hala ere, jendeak lagundu nahi du, etxetik ateratzen denak kontsumitzen du», dio Mitxeok.

Egin duten saskien zozketak eta bonuen kanpainak izan duten erantzunarekin pozik azaldu dira merkatari eta ostalari lezoarrak. Mugimendua sortu dute herrian. Sariez gain, herriko beste

komertzioak ezagutarazteko balio izan dute iniziatiba horiek. «Herrian badaude zerbitzuak», dio Mitxeok.

Laguntza gehiago

Udalak emandako laguntzagatik eskerak eman dituzte Lezoko merkatari eta ostalariek, «baina ez dira nahikoak», dio Mitxeok. Ostalariek diotenez, bada argindarrean 700 euroko gastua duenik hilean. «1.000 euro jasotzea ongi dago, baina ez da nahikoa, bistan denez».

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak oraindik iritsi ez direla salatu dute lezoarrek, «ez dakigu non dauden laguntza horiek». Mitxeok adierazi du, «bizirauteko», 15.000 edo 30.000 euroko maileguak eskatu behar izan dituztela ostalari batzuk, eta horien ordainketari aurre egiten hasi behar direla orain: «Larrialdietarako gordeta genuen dirua xahutu dugu. Ostalaritzako hirugarren itxialdi bat hondamendia litzateke». Askok ez lukete pertsiana berriz ere zabalduko. Eta ostalaritzan mugimendurik ez bada, gainerako komertzioetan horrek eragina duela adierazi dute.

Ilusioz ari dira lanean edonola ere, azken batean euren buruaren alde bakarrik ez, herriaren bizitzaren alde ere eragiten ari direlako. ✕

Aiton Bordako tabernan, kudeatzaile bila

Aiton Bordako taberna zerbitzuaren kudeatzaile bila hasi da Lezoko Udala. Esleipen prozesua abiatu du. Interesdunek hilaren 14ra arte dute eskaera aurkezteko epea. Esleipena, hasiera batean, urtebetekoa izango da eta urtez urte luzatzeko aukera dago, hiru urte bete arte.

Ezarritako baldintzen arabera, udalak hainbat kosturen zenbatekoa bere gain hartuko du, hala nola ura, argindarra eta bestelakoak. Aldi berean, udalak 500 euro emango dizkio hilabete bakoitzeko ustiatzaileari, espazioaren garbiketa eta atezaintza lanengatik. Alta, udalak ezarriko du tabernako gaien salmentaren prezioa, eta ustiatzailea arduratuko da beharko diren produktuak eskuratzeaz.

Aiton Bordako taberna kudeatu nahi dutenek informazio askoz osatuagoa Lezoko Udalaren webgunean aurki dezakete: lezo.eus.



Hurrengo Lezo-Jaizkibel lasterketa, 2022koa

Urtarrilaren lehen eguneko lehen segundoak arraroak izan dira Lezo-Jaizkibel mendiko lasterketaren antolatzaileentzat: orduan hasi izan dira izen emateak azken urteetan, eta aurtengoan, ez da horrela izan. COVID-19ak sortutako egoeragatik, otsailean ez da izango Lezo-Jaizkibel. 2022an bai.

Preso eta iheslarien eskubideak, plazatik

Sare Herritarrak deituta, euskal presoen eta iheslarien aldeko manifestazioa egingo dute bihar Lezon, urtero urtarri-laren hasieran Bilbon eta Baionan egiten diren hutsunea betetzeko asmoz. Lezon eta beste 200 herritan egingo dituzte testuinguru horren arabera mobilizazioak. Herriko martxa 17:30ean abiatuko da, Gurutze Santuaren plazatik.

‘Zeorri!’-ren bosgarren zenbakia, kalean

Piztu Lezoren *Zeorri!* aldizkariaren bosgarren zenbakia banatzen ari dira abendu bukaeratik. Gai interesgarri eta atal landuak topatuko dituzte lezoarrek, beti hurbiltasunetik, euskaraz, eta Lezo oinarri izanda. Etxean jaso nahi dutenek harpidedun egin behar dute, Piztu Lezoren sare sozialetatik sartuta.

Lezo
Herri Eskola

HAZI, HEZI ETA BIZI EUSKARAZ

**2 urtetik
16 urtera
bitarteko
heziketa**

Nik, aukeran, euskaraz nahiago

**Matrikulazio epea
urtarrilaren 18tik 29ra
(hitzordua eskatu)**

**Ate irekiak hitzordua hartuta
urtarrilaren 11tik 15era**

baikara
Eusko Eskolen
Batasun Federazioa

www.lezoherrieskola.eus - 943 514 804 - info@lezoherrieskola.eus

OIARTZUN

Animalia esplotaziorik gabeko festen aldeko erronka

Aska Itzank Animaliak taldea sortu dute herrian. Animaliek egungo festa eredian duten presentzia eta papera irauli nahi du taldeak, eta objektu bilakatzeko roletik atera.

ERIK GARTZIA

Orain dela urtebete inguru, oiartzuar talde bat elkartu zen, interes komun batekin: festetan animaliak erabiltzeari uzteko mugitzea. Hasiera batean, ez zuten elkarte bilakatzeko asmorik, baina euren aldarri eta lanaren bilakaera ikusita, erabaki zuten talde bilakatzeko, Eñaut Retegi Aska Itzank Animaliak (AIA) taldeko kideak azaldu duenez. Lide Treku taldekideak azaldu duenez, badute begiratzeko ispilua: Errenteria-Orereta. Askekintzaren gonbidapenari erantzun zion bertako udalak: erabaki zuen animaliak ez erabiltzea herriko festa eta ospakizunetan. Oiartzungo taldea elkartu da bere herriko udalarekin.

Azaldu dutenez, taldea sortzeak eta proposamenak plazaratzeak askotariko erreakzioak sortu ditu udalerrian. Horrela laburbildu du Retegik: «Batzuek txalotu egin gaituzte, eta bazela garaia esan dute. Beste batzuek, eraso bezala hartu dute. Zati handienak, agian, ez du garrantzitsutzat hartu, momentu honetan fokua beste toki batean dagoelako. Hiru iritzitan banatu da herria, baina oso pozik gaude jasotako erantzunarekin». Treku gaineratu duenez, nahiz eta kontrako jarrerak jaso dituzten, ase-



Sokamuturra bezalako ekitaldietan animaliak zapaltzen direla salatu du AIAk. E. G.

beteta daude erantzunarekin: «Lortu dugu ikusaraztea hor gaudela».

Kalean protesta egiteko moduak mugatuta daudenez, hiru bideo prestatu dituzte. Ez dituzte gauza konkretuak eskatzen; animaliekiko dagoen harremana islatu dute. Lehenengo bideoan, haurren pedagogia izan dute hizpide. Bigarrenan, tradizioak dena zilegi egiten ez duela aldarrikatu dute. Eta hirugarrenean, ge-

AIAk «gertuko» sentitzen dituen taldeengana jo du, indar metaketa egiteko

nero ikuspuntu batetik begiratu diote animalien zapalkuntzari. Treku zabala go azaldu du: «Genero ikuspuntuak aditzera ematen duena da zer gertatzen den herri festekin, eta gizonen presentzia horrekin. Nola animalien erabilera dagoen lotuta indarkeria eta maskulinitate toxikoarekin». Feminismoarekin lotura egin du AIAko kideak: «Argi ikusten da zein helbururekin erabiltzen den: dekoazio moduan; haiekin ongi pasatzeko; edo nire indarra erakusteko. Animaliak

era ezberdinetan objektu bihurtzeko era ezberdinak dira, emakumeokin egiten den bezala».

Oiartzunen oiartzuarrek sortua

AIAko kideek argi utzi nahi izan dute Oiartzunen sortutako taldea dela, ez dela kanpo eragile bat. Modu horretan, herriko talde eta eragileekin elkartu nahi dute; komunikatu bat idatzi dute, eta dagoeneko hasi dira ate joka. Indar metaketa sortu nahi dute, «gertuko» kontsideratzen dituzten taldeekin.

2020an ez da festarik ospatu. «Orain ikusten ari gara nola bizi gaitzkeen animalien erabilerarik gabe, eta momentu ona izan daiteke hausnarketa bat egiteko zein festa eredu nahi dugun», esan du Retegik. Epe laburreko helburua izango da animaliarik gabeko Txerri Eguna ospatzea. Hori bai, argitu dute ez direla talde espezista, eta txistorraren ohiko salmenta ez dutela zalantzan jarriko.

Adin, jatorri eta pentsaera askotako herritarrak elkartzen dira AIAan, eta atak zabalik dituztela esan dute, Facebooken (/aia.oartzun) eta Instagramen (/aiaoartzun). ✕



ERIK GARTZIA

Ekitaldiak antolatzeko laguntzak, urtarrilean

Iaz hasitako biderei jarraituz, 2021ean kultur ekitaldiak antolatzea aurreikusita duten talde edo eragileek diru laguntza hilabete honetan eskatu beharko dute. Oiartzungo Udalak 43.290 euro banatuko ditu elkarten artean, pasa den azaroko ohiko udalbatzarrean aho batez onartu zuten bezala.

Oiartzun Kirol Elkartea, berriro zelaietara

Gabonetako atsedenaldiaren ondoren, lehian ari diren Oiartzun Kirol Elkarteko bi taldeak jokatzera bueltatuko dira asteburuan. Bi taldeek Ugaldetxon jokatuko dute. Bigarren Nazional Mailako taldeak San Inazioaren bisita jasoko du bihar, 15:30ean (Twitch bidez ikusi daiteke). Karla Lekuonan jokatu da partida hori. Euskal Ligako taldea, berriro, Zarautzen kontra ariko da (etzi, 16:30ean). Gipuzkoarren arteko partida belar sintetikoko zelaietan jokatu da.



‘MOTXILADUN UMEEN’ EGOERA, LARRIAGOA

ERIK GARTZIA

Pasa den asteburuan, Oiartzungo Sarek deituta, agerraldi jendetsua egin zuten Madalensoron. Pandemiak motxiladun umeen egoera larriagotu duela salatu zuten. Joanes Larretxea herriko presoaren seme-alaben egoeran jarri zuten fokua: aurten bederatzi hilabetez egon dira aita ikusi gabe, eta ikusi dutenean mugatuta egon dira; urtebeteko alabak lau aldiz bakarrik ikusi du jaio zenetik. Larretxea euskal herriratzeko dinamika egingo dutela iragarri zuten. HITZA

Auzoetatik Elizaldera, presoaren eskubideen alde

Sarek mobilizazio eguna deitu du bihar arratsalderako. Oiartzunen auzoz auzo mobilizatuko dira, eta ondoren —17:30 inguruan—, denak elkartuko dira Madalensoro kanpoaldean. Presoak euskal herriratzeko bidea egiten jarraitzeko asmoa du Sarek, elkarbizitza eta bakearen bidean. Honakoak dira jarri dituzten hi-

tzorduak (alfabetikoki ordenatuta): Al-tzibarren, 16:00etan, auzoko plazan; Arraguan, 17:00etan Mendinen; Ergoien, 17:15ean, al baitari zentroko aparkalekuan; Gurutzen, 17:00etan, Mendintxeberrin; Iturriotzen, 16:00etan, auzoko pilotalekuan; Karrikan, 16:30ean, auzoko plazan; eta Ugaldetxon, 17:00etan, futbol zelai inguruetan. Zutabe guztiak batzean, ekitaldia egingo dute.



zaindu ELKAR hartu
zaindu ELKAR hartu
zaindu ELKAR hartu



OIARTZUNGO
UDALA



EUSKAL
HERRIA

Motora Mugi sistemaren txertatzeko bideari ekin dio udalak

Garraio zerbitzuaren gaineko ohiko deskontuak ez ezik, Pasaiaiko barrutiak lotzeko linea berrien sorrera ere jaso du proposamenak. Pasaiaiko Portu Agintaritzak dauka azken hitza.

OLAIA GERENDIAIN

Pasaiaiko Udaltzatza aho batez eman zion baiezkua joan den urte amaieran motora zerbitzua Mugi sistemaren barne hartzearen emendakinari. Jatorrizko proposamena EH Bilduk egin zuen, eta horri erantzunez udal gobernuak aurkezturiko zuzenkizuna izan zen Pasaiaiko Udala osatzen duten zinegotziek, denen akordioz, onetsitakoa.

Testuaren bitartez, udalak Pasaiaiko Portu Agintaritzari (PPA) eskatuko dio beharrezko izapideak bidera ditzan motora Gipuzkoako Garraioen Lurralde Agintaritzaren barruan sartzea lortzeko.



Egungo lineaz gain, motora beste barrutietara zabaltzea da asmoa. OLAIA GERENDIAIN

HITZA-k motora kudeatzen duen enpresako zuzendaritzarekin hitz egin du; horren arabera, inizatiba aurrerapausoa da, «pasaitarrak aspaldi egiten ari diren eskaerari erantzungo lioke». Txartelari esker, beste garraio publikoekin bezala, deskontuez gain, ibilgailu aldaketa ere konbinatu ahalko lukete bidaiariek.

Linea berriak

EH Bilduren jatorrizko proposamenak motora linea berriak sortzeko aukera ere jasotzen du, barrutien arteko bizikidetz

hobetzeko; hala, egun San Pedro eta Donibane lotzen dituen ohiko zerbitzuaz gain, Antxo eta Trintxerpe ere lotzea aurreikusi dute.

Motora kudeatzen duen enpresaren zuzendaritzak zalantzak ditu balizko linea berriek izan dezaketen arrakastaz. «Ongi aztertu beharko litzateke ea etekina aterako ote zaien», diote. Edonola ere, nabarmendu du badirela aurretik egin beharreko lanak, horien artean, egun erabiltzen diren ontziralekuak zaharberritzea. ✕



La Anunciata
Ikastetxea
Donostia-San Sebastian



HAURRESKOLA-HH-LH
DBH-BATXILERGOA

Izan nahi duzuna izan



Zatoz gure eskola ezagutzera!

On line bilera informatiboak

Haurreskola/HH/LH: URTARRILAK 18 / 17:30

DBH/BATXILERGOA: URTARRILAK 18 / 18:30

(astelehena)

Esteka webgunean publikatua izango da

651 701 996 - 618 11 97 83

laanunciataikastetxea@fecoll.org

Deitu eta informazio zabalagoa emango dizugu

Euskal presoen aldeko larunbata, Pasaian

Hainbat elkarretaratze deitu Sare Herri-tarrak 200 herri eta auzo baino gehiagotan biharko, *Etixerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidea gara* lemapean.

Izan Bidea dinamikaren barruan, euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde hiru kontzentrazio izango dira Pasaian, 17:30ean, honako tokietan: Antxoko Gure Zumardian, Trintxerpeko Gernika Plazan eta Donibaneko Meipi auzoan.

Bilkuretan bi aldarri nagusi gailenduko dira: presoen eta haien sendeen kontrako urruntze politikarekin amaitzea batetik, eta euskal presoek sistematikoki ukatu izan zaien eta etxerako bidea ahalbidezko beharrezkoa den gradu progresioa ezartzearen eskakizuna, bestetik. Oraindik 107 dira lehen graduari jarraitzen duten euskal presoak, eskubide ugari murrizten zaizkielarik.



EH Bildu: «Ez dugu gobernu hau merezi»

Pasaiaiko EH Bilduk salatu du udal gobernuak bizkarra eman diela, «berriro ere», herriko jai batzorde eta elkarteei, udan bezala, pasaitarrek Gabonetarako antolatutako ekitaldi guztiak debekatu izanagatik.

Oposizioko taldeak nabarmendu du udal gobernu osatzen duten PSE-EE eta EAJk pandemia aitzakiatzat hartu dutela, antolatutako ekintzek (Mari

Domingi eta Olenzerori harrera, artisauren azokak, Erregeen ongi etorria...) beharrezko segurtasun eta higiene neurri guztiak betetzen zizutela argi utzi nahi izan baitute.

Koronabirusak eragindako ezohiko

egoeraren aurrean neurri bereziak eta esfortzu berezia ezinbesteko direla adierazi dute, eta udalak ahalegin hori ez egin izana salatu nahi izan dute: «Udalak erraztaile behar du izan».

EH Bilduko zinegotzien ustez, herriko gobernuak harturiko erabakiak «ulertezinak eta gaitzesgarriak» dira, agintariek, Pasaiaiko eragileekin bildu beharrean, ekintzak bertan behera uztea hautatu baitute: «Pasaiaiko Udala, urrun dago oso, debekua ez baita bidea. Pasaitarrok ez dugu udal gobernu hau merezi».



Pasaian, futbola bakarrik lehian

Egungo osasun eta segurtasun neurriengatik, maila nazionalean ari direnak —Antxo AF eta Pasaia KE— dira lehiatzeko baimena duten herriko talde bakarrak. Areto futbolekoek etxean dute asteburuko hitzordua, bihar 18:00etan Antiguokoren kontra, Donibaneko kiroldegian. Hamaikako futbolekoek, aldiz, Durangon emango dute aurpegia bihar 17:00etan; antxotarrak oso txukun ari dira, sailkapeneko lehen postuak Pasaia KEren izena baitu. Antxo AF laugarrena da Hirugarren Mailan.



ANTXOKO BULEBARRAREN HERRI AURKEZPENA

OLAIA GERENDIAIN

Tren Geltoki Berriaren Plataforma bihar bilduko da bizilagunekin, Adifen geltokia dagoen lekuan egitekoak diren lanen gainean prestatutako proposamena antxotarreri aurkezteko. Kideen ideia da lursailaren zati bat herrian bulebar bat sortzeko erabiltzea. Bilkura 11:00etan izango da, San Fermin elizan. Lehen aurkezpena azaroan zen egitekoa, baina udalaren debekuz atzeratu behar izan zuten. OLAIA GERENDIAIN

AGENDA

GAUR

Antzerkia

Erreterria-Oreeta. MugMugs laboragiaren eta Eider Rodríguez idazlearen artean sortutako *Garaiz: 60 t.m* izeneko antzezlanaren taularatuko dute, 19:00etan, Niessen kulturgunean. Sarrerak 8 euroan eskura daitezke, Niesseneko leihatilan edo www.bibe.me/events webgunean.

Irun. Txabi Franquesa umoregileak *Escocía* izeneko monologoa eskainiko du Amaia Kultur Zentroan. Sarrerak 14,90 edo 9,60 euroan eskura daitezke, leihatilan bertan edo Luis Marianoko turismo bulegoan.

Ikus-entzunezkoak

Irun. Soinu Labor programaren azken ekitaldian Irungo Argazkilaritza Elkar-teak eta Irungo Harrera Sareak elkarlanean egindako ikus-entzunezkoa proiektatuko dute, 10:00etan, Oiasso Erromatar Museoa. Audience taldeak bideo klip bat osatu du, eta hori proiektatuko dute; bihar eta etzi ere proiektio berbera errepikatuko dute, 10:00etan eta 16:00etan.

BIHAR

Antzerkia

Erreterria-Oreeta. Vaiven Circo konpainiak *Esencial* lana taularatuko du, 19:00etan, Niessen kulturgunean. Sarrerak 8 euroan eskura daitezke, Niesseneko leihatilan edo www.bibe.me/events webgunean.

Azoka

Irun. Asteburuko merkatu txikia egingo dute Urdanibia plazan, 08:30etik 13:00era bitarte. Irungo zein inguruko baserriarren produktuak salgai izango dira.

Ikus-entzunezkoa

Hondarribia. *Erlauntza* euskarazko filma proiektatuko dute, 19:00etan, Itsas Etxea Auditorioan. Sarrerak 4 euroan eskura daitezke, Arma Plaza informazio gunean.

ETZI

Antzerkia

Erreterria-Oreeta. *Proyecto 43-2: Rescaldos de paz y violencia* izeneko antzezlanaren taularatuko dute, 19:00etan hasita, Niessen kulturgunean. Sarrerak 8 euroan eskura daitezke, Niesseneko leihatilan edo www.bibe.me/events webgunean.

Hondarribia. Txalo Produzioak-ek *Konpromisoa* antzezlanaren taularatuko du, 19:00etan hasita, Itsas Etxea Auditorioan. Sarrerak 8 euroan eskura daitezke, Arma Plazan edo Kutxabanken Interneteko sarreraren zerbitzuan.

Lezo. Benetan Be konpainiak *Porno vs Afrodita (edo I love #gorkaurbizu)* izeneko antzezlanaren taularatuko du, 19:00etan, Gezala Auditoriumean. Sarrerak 8 euroan eskura daitezke, Lezoko Udaleko Kultura aretoan, edo udalaren Interneteko atariaren bitartez. Ixtear den gaztetxe bati buruzko obra da Benetan Be konpainiarena.

ASTELEHENA

Deialdiak

Irun. Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea egingo du Txingudiko Pentsiodunen Mugimenduak, 12:00etan, San Juan plazan.

ERAKUSKETAK

Erreterria-Oreeta. *Amanecer: diseñando desde Torrekua* izeneko erakusketa bisitatu daiteke Torrekuan. Habiñ! Fabrika Kreatiboko Saioa Matxain, Anne Gajate eta Ruben Pontiga moda diseinatzaileen lanak ikusgai daude bertan. Orduetgia: larunbatetan

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta igande eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.

Irun. *Pandemiak antzinaroan* izeneko erakusketa historiako pandemia nagusien errepaso egin dute, Oiasso museoa. Orduetgia: astearte, asteazken, ostegun eta igandetan 10:00etatik 14:00etara eta ostiral eta larunbatetan 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Irun. Jesus Martia Corman margolari eta poeta pasaitarraren obrak ikus daitezke *Salvajeza* erakusketan, Menchu Gal aretoan. Orduetgia: ostiral eta larunbatetan 18:00-21:00e, eta igande eta jai egunetan, 11:30-13:30.

Pasaia. *12 cm* erakusketa bisita daiteke San Pedroko Udal Aretoan. Diziplina askotariko arte obrak ikusgai daude. Orduetgia: asteartetik larunbatera, 18:30etik 20:30era; igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era.

TELLERI-ALDE IKASTETXEA - COLEGIO SAGRADO CORAZON

Hermanos del Sagrado Corazón



2 - 16 urte • Hirueleduna
Eskolaz kanpoko ekintzak
Jangela (bertan prestatutako janaria)
Hurtzaindegia 07:30etik 09:00etara

Matrikulazio epea urtarrilaren 18tik 29ra

Mendi taldea • Eskola kirola
Sputnik aisialdi taldea

Bittor Idiazabal, 1 20100 Erreterria (Gipuzkoa) Tel.: 943 51 12 33 . Faxe: 943 51 20 95
www.tellerialde.com - matrikula@tellerialde.com

HITZA zureago, zuenago egiteko baliabidea abian

Esku artean duzuen astekari berriaren berri-tasunetakoa *Zurea da hitza* orrialdea da. Hain zuzen, oraintxe, bertan zaude. Orrialde irekia da, Oarsoaldeko eta Bidasoko eragile, elkarte, talde eta bestelakoei begirakoa. Orrialdearen intentsioa da zuzenean horien guztien berri izatea, haien hitz eta irudiekin. Eragile horiek zer egiten duten, zein asmo dituzten, egiten dutena zergatik egiten duten horrela azaltzeko orrialdea izan daiteke honakoa, esan bezala, hedabideak jaso ditzaketen proposamenetara zabalik.

Izan ere, astekari berri honen edukien

Jaso nahi dugu gure herrietako eragileek zer eta nola egiten duten. Baina berezitasun batekin: haiiek antolatuko dute euren orrialdea izango dena

gaineko inkesta egin zenean, herrietako taldeei begirako informazioa bideratzeko baliabideak jartzea izan zen partaideen eskakizun nagusienetakoa. Hau da, komunitatea indartzea.

Esate baterako, jaso nahi dugu mendi taldeek zer egiten duten, nora doazen, beste herritarrek jakin dezaten nola gozatu gure inguruaz; jakin nahi dugu talde feministek zer nolako lana egiten duten jen-

dartea ikuspegi morearekin aktibatzeke, berdintasuna ez dadin hitz soil batean geratu; jaso nahi dugu tokian tokiko euskara elkarteek nahiz hizkuntzaren alde lanean ari di-

renek zer duten esku artean, elkar eraginarekin indartzeko; bildu nahi dugu, aldi berean, memoria historikoa berreskuratzeke lanean dabiltzan eragileek nola begiratu duten atzera, garena ulertzeko.

Orobat, herrietan mugimendua sortzen duten elkarte edo talde horien berri jaso nahi dugu *Zurea da hitza* atal honetan, baina haien hitzekin. Hori egiteko, gurekin harremana egitea besterik ez dago.

GURE HERRIKO ESKOLA

KARMENGO AMA
IPI has komunitatea



- **Ikastetxe Publiko Integrala 2 - 16 urte**
- **Berrikuntza pedagogikoa**
- **Familiekin eta herriarekin elkarlana**
- **Ikasketa dialogiko-kooperatiboa**
- **Bertan sukaldatutako janaria**

Ulia etorbidea z/g. 20110. Trintxerpe – Pasaia.

Tel.: 943 899 248 / 688 629 924

zuzendaritza@ipikarmengoama.eus - www.ipikarmengoama.eus



**HITZ
GEZIDUNAK**



Lehiaketan parte hartzeko, bidali denbora-pasen orrialdea osaturik 688 77 07 52 zenbakira whatsapp bidez (argazkia atxikituz), denborapasakobh @hitza.eus helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrita) edo OARSO BIDASOKO HITZAKO bulegora (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda. Epe muga: datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.

	Herri baxenabartarra	Galbahe	1503	Ibaiko igarobide	Garraio mota
	◆ Deitura	Batzarrean bilduta	Emakume izena	Euskaltegi sarea	Kementsu
	Mahai lagun				
	Bi ken bat				
Gustukoak	Artilleria piezen multzoa				Zintzo
◆ Izena	Trebe, abil				Ohea
			Interjekzioa		Txakurra
			Kolore mota		Nahastura trinko
Gatzarri lekua				Ohatze	
Ozta				Greziako eskualdea	Puska, atala
		Zoro		Arabako mendia	
		Zimur		Atx!	
Euskal atzizkia		Baldarra			
Begira		Jardun			
		Ebaki sakona		Tente, zutunik	
		Dauka		51	
Lerdea dariona				Bilo	Bokal mehea
Ugaztun karraskaria				Nitrogenoa	Kontsonantea
				Emakume izena	

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										
11										

GOITIBEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Bidean eta eskean bizi direnak.
- [2] Ez baserritar eta ez menditar.
- [3] Norbaitek beste bati egiten dion galera.
- [4] Irungo auzoa, era berean Landetxa deitua.
- [5] Sarrera nahiz irteera.
- [6] Juntagailua.
- [7] Zerbait egiteko une edo aukera egokia.
- [8] Amuan arrainak atzemateko jartzen den janaria.
- [9] Lapurtu, ostu.
- [10] Kantua, kanta.
- [11] Notizia, berria.

SUDOKU

6				3	7		
		4				6	3
		8		1		4	
				5	1	3	
1			6	7			9
	8	3	1				
	4		8		6		
5	6				8		
		1	2				4

Formatu berriarekin batera, astero, denbora-pasen atala izango du astekariak. Urte osoan zehar, lehiaketa baten bidez, **47 asteetan zehar 47 sari** zozkatuko ditu OARSO BIDASOKO HITZAK parte hartzaileen artean.

DENBORA-PASAK



ASTEKO SARIA OARSOALDEKO 8 MUSEOETARA JOATEKO SARRERA

Sarrera bikoitz bat
www.oarsoaldeaturismoa.eu/eu/

ZOKKETAK



LIBURUA: ZERBITZUKO LANEAN. LETE KAZETARI, LETE PROSAGILE.

Egileak: Elixabete Perez Gaztelu, Haizea Saez de Eguilaz eta Anjel Lertxundi



LIBURUAK: BATETIK ZETARA GURE OSTADARRA / BURNIZKO POTOA

Egilea: Antton Kazabon / Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena



TXAKOLIN SORTA

Igartzeta txakolin botila bi eta Basa Lore botila bat (zerbitzatzeko ardoa)

www.basa-lore.com

Gure proiektua aurrera eramaten laguntzen diguten HITZakideek, merezi duten atal propioa izango dute hemendik aurrera astekarian.

Txokoko zozketak, denbora-pasen dinamika, eskaintza zein produktu berezien jakinarazpenak eta beste hainbat informazio lehen eskutik irakurri ahal izateko, hona hemen zuen TXOKOA.

Parte hartzeko sartu oarsoaldea.hitza.eus edo bidasoa.hitza.eus webguneetako ZOKKETAK atalean urtarrilaren 8tik 13ko 12:00ak arte. Saridunen izenak urtarrilaren 15ean, ostirala, argitaratuko ditugu astekarian eta webgunean.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitetz HITZakide.....

Nola? 943 30 43 46 zenbakira deituz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

**Leiho bat
zurean,
gurean**

egin zaitez
HITZA *hide*